


Baleike

Zumaiaako herri aldizkaria. 15. zbkia. 1995eko uztaila. 100 pzta.



Surfistak, olatu gainean dantzari

Erreportaia


**Udako
festetan
murgiltzera
goaz**

Euskara

**AEK eguneko
egitarauaren
aurrerapena**

Kirolak

**Sabin Arana
Gipuzkoako
txapeldun**



(Javier Carballo utzitako argazkia)

Nola aldatzen diren garaiak! Ez dakigu zehazki noizkoa den argazki hau, baina argi dago Titanic untzia hondoratu baino lehen, bertatik pasatu zela noraezean. Zeinek esango luke argazki hau ikusita, gaur egungo itxura faraonikoa hartuko zuela.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ZUMAIako INSTITUTUA
Aita Mari Auzategia, z/g
20750 - ZUMAILA
86 08-09/86 08 10

Zumaiaiko Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

lan taldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Itziar Manzidor

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,

Miriam Romatet,

Aitor Leiza, Izar Martin,

Imanol Manterola, Ander

Hormazuri, Jon Manzidor

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 650 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKE ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Iritzia.....	4
Gai Librean.....	5
Ze Berri?: Botadura, Saharauiak, Ruben Egaña	6
Elkarrizketa: Surfistak, olatu gainean dantzan.....	8
Inkesta fotografikoa.....	11
Erreportaia: Garai batekoudako festak	12
Komikia: Dani Carballo.....	15
Olarru zopa	19
Izerdi patsetan: Futbito, Sabin Arana.....	20
Udako festak:.....	22
Sexualitatea.....	24
Gaztedia.....	25
Kultura:	26
AEK eguna:.....	27
Literatura:.....	28
Musika:	29
Denborapasak:.....	30
Merkatu txikia:.....	31
Kontraportada:.....	32

H

itzaurrea

Neguan ikusi dut nola jokatu duzun nirekin, eta orain udaran, ez zabiltza askoz hobeto. Anputatu berri dizkidazun komikiaren bi orrialdetan bildu duzu txorixo bokata, eta sexualitatearekin, ur botila. Mozolo! Orri horiekin ura berotu egingo zaizu. Hau gutxi balitz hondartzara joan, eta irakurriko nauzunaren aitzakiz, hondar gainean utzi nauzu, eguzkitan. Ez al dakizu, oraindik ez dagoela paperarentzako aftersunik? Ume bat nire gainean eseri da trajebaño buziakin eta zu bitartean, kantinan, zerbeza frexkoa hartzen. Alua! Bañatzen ari zinen artean, Eibartar batek zapaldu nau, literatura eta elkarrizketa hondarrez betez. Eta ni hala ere aguanta! Zer? Irakurriko nauzula? Ez, orain ez, bustita zaudela!

Kaka, orain ni ere blai! Espero det irailean behintzat hobe tratatuko nauzula.

PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epategia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

Parrokiko argiak direla eta

Ismael Manterola Ispizua

.....

Aspaldiko kontua bada ere, gai honi buruz zerbait esan behar dela iruditu zait, lan hauek izan dituzten gora beherak zumaia guztiok jakin ditzagun.

Ezer esan baino lehen, jakin behar dugu, Zumaiaiko eleiza babesteko ondarea izendatuta dagoela eta Euskal Kultur Ondareari Buruzko Legeak eraikuntza hauetan edozein lan egiteko Eusko Jaurlaritzaren eta Diputazioaren baimena behar dela zehazten du.

Hau hala bada ere, parrokiko argitze lanak egiteko Zumaiaiko Udalak ez zituen behar diren baimenak eskatu eta baimenik gabe burutu ziren aipatutako lan hoiek, beraz legez kanpokoak dira.

Ez da gehiegi eskatzea, guztion zerbitzurako eta guztion diruarekin ordaindutako Diputazioko teknikoengana jotzea horrelako lanak egin behar direnean, bestela gure eraikuntza historikoak itxuraldatzeko eta bueltarik ez dituzten kalteak egiteko arriskua dago (hau ez bada kasua ere).

Guzti hori ikusita, kexa karta bat bidali nuen Diputaziora eta Eusko Jaurlaritzara arazoaren berri emanez. Diputazioak emandako erantzuna, seguruena lanak baimendu egingo

dituztela izan da (nahiz eta Udalak lanak burutu ondoren eskatu) eta ez zituztela foko haundiak kenduko gaizki eginda egon arren (teknikoen iritzia) erabaki politikoa zelako eta ez erabaki teknikoa.

Bukatu baino lehen administrazioak erabiltzen duen iritzi ezberdina azpimarratu nahi nuke, hau da, partikularrek obrak legez kanpo egiten dituztenean kenarazten dizkiete, baina administrazioak okerren bat egiten duenean erabaki politikoak erabiltzen dira gaizki egindakoak ez zuzentzeko.

Besterik gabe, zorionak eman

Zumaiaiko Udalari, aurreko legislaturako Udaleko Hirigintza komisiolari (alderdi politiko guztien ordezkariak zituena) eta Udaleko teknikoei bere lana oso ondo betetzeagatik.

Postdata 1: Nahiago nuen parrokia ontxuriek, argi itxusi eta garestiek baino.

Postdata 2: Hauteskunde aurreko kanpainak "kultura espektakulorako" milioiak bideratzen ditu, eleiza barruan premia haundia duten artelanak usteltzen diren bitartean.



**LANDARE
LOREDENDA**
Baltasar Etxabe, 5
Tel. 862472 ZUMAIA

**kukutz
SERIGRAFIA**
★KAMISEAK
★KAPELAK
★TXISKEROAK
★TXANDALAK
★PAPELEZKO
POLTSAK

Narrondo 8, 2. esk



Amertze

Erribera Kalea, 6
Telefonoa: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



**ENEKO
DORRONSORO**

Amazoniar oihaneko "Langilerum" txingurria

Orrialde honetan txingurri klase arraro eta era berean eder honi buruz idaztekotan nintzen, Baldeikek eskatuta.

Jakingo duzue xinaurriek langile fama dutela, eta aitortzen dut ondo baino hobeto merezia zutela adjetibo hau, baina garai batean: orain ez, zeren eta gaur egunean dagoen xinaurri langile bakarra *Langilerum*-a da, beste guziak langabezia baitaude krisisa dela medio.

Beno ba, lehen aipatu dut txingurri hauei buruz idaztekotan nenbilela, baina arazo bat dela tarteko ezingo dut idatzi.

Inurri mota hau, ameriketako Amazoniar oihanean bizi da, eta bertan ere oso urria da. Inurrien espezieko anaietan txikiena da, langile zintzo eta leiala.

Lan hau eskatzerakoan ea zerbait beharko ote nuen galdetu zidaten, eta eskatzea libre denez, Amazonetara joan beharra izango nuela esan nien, esperientziren bat edo beste egin ahal izateko bertan.

Eskatzea libre dela, eta baita ez ematea ere! Baina nire harridurarako aldizkariakoak egin ziren Amazonetara egin behar nuen bidaiaren kargu, beren fondo erreserbatuetako diruarekin ordainduko zutela hitza emanez. Eta hitza ondo bete zuten. Irteera baino pare bat egun lehenago heldu zitzaidan hegazkineko txartela.

Orain arte dena ondo doa, baina arazoa, irten behar genuen egunean sortu zitzaigun. Gida ohean omen zegoen berrogei gradutako sukarrarekin, eta beraz, gure espedizioa bertan behera geratu zen.

Traba hauek direla medio, eta bidaia burutu gabe nire lana ongi egitea ezinezko zaidanez, gaiz aldatzea erabaki dut. Jada ezinezko izango da datorren Baleikeren ale honetan argitaratzea, baina ea hurrengo alerako burutzen dudan nire lana.

Ah! Ia ahaztu zait! Aukeratu dudan gaia zera da: HAWAIIKO KAKARRALDO BEGI BAKARRA (ea oraingoan ere portatzen diren, honela, suerte pixka batekin Hawaiiara joango naiz gastu guztiak ordainduta).



**Iratxe
Aizpurua**

Zergatik beti
mutilak atal
honetan?
Anima
zaitzete,
neskak ez
bait gara
guxiagorik!!




**Itziar
Manzisidor**

Bertsoz-bertso Irlandarantz

Gai libre bat aukeratu
hasi gera kantari
bertso pare bat asmatzen
jo ta ke gera ari
jadanik badakizkigu
doinua eta neurri
ahalegina egingo deu
ez gara bertsolari.

Bertso bat eginga dugu
ta ekin besteari
baino hau bukatzerako
nahi bat dugu ekarri:
gure lana eskeintzea
maite dugun Estherri,
muxu haundi bat zuretzat
eta laister etorri!



**BELARDENDA
SIWA**



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behe
Tlf: 143404 - 860012

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



Amaia plaza, 7
Tel.- Fax: 862385
20750 ZUMAIA

IKUSMIN HANDIA BOTADURAN

Jende ugari bildu zen Gernikako parkean eta moilan Astillerotatik atera den azken untziaren botadura ikusteko. Marea bizia aprobetxatuz, uztailaren 12an ureratu zuten, eta egun, moilan ari dira azken ikutuak egiten.



Dani Carballo udako txartel lehiaketako irabazle

Aurtengo Udako festetako txartel lehiaketako irabazlea Dani Carballo zumaia gaztea izan da.

Berea da festetako egitarauaren azaleko irudia beraz, eta baita Baleikeko zenbaki honetan argitaratzen dugun komikia, gure komiki lehiaketako bigarren saritua ere bera suertatu baitzen. Zorionak Dani!

Beste bi!!

Harrigarria badirudi ere, uztailan beste bi motora hondoratu dira Zumaian. Hauekin sei dira azken hiru hilabetetan Zumaian hondoratu diren motorak, besterik gabe amarraturik zeudenean. Badirudi marea biziak daudenean, motorak lehorrean geratu eta zerbait jotzen dutela. Espero dezagun ratxa honek ez jarraitzea.



Auto - Konponketak

ELKAR



Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

JOSEBA OSA
- ITZULPENAK -

EUSKARA-GAZTELERA-
KATALANA-INGELES-
FRANTSESA

tel / fax: 148065

Ruben Egaña, zumaiar preso politikoa askatu dute

Ia lau urte kartzelan igaro ondoren, bere abokatuak ezarritako errekurso baten bitartez, baldintzapeko askatasuna lortu du Ruben Egaña zumaiar preso politikoak.

Jaiotzez zumaiarra bada ere, Donostiako Gros auzoan bizi da azken urteotan, bertako

bizilagunek egin ziotelarik, merezi zuen ongi etorria.

Hala ere, horrek ez du esan nahi, Ruben-ek askatasuna lortu duenik. Oraindik ere, Tribunal Gorenak errekursoari emango dion erantzunaren zain daude, ondoren berriz kartzelara itzul litekeelarik.



Haur saharaiak Zumaiako udalekutan

Urtero bezala uztailen zehar, Zumaiako ludotekan izaniko udaleku irekian haur saharaien bixita izan genuen egun batez.

Begirale batekin etorri baziren ere, gainontzeko haurrekin jardun ziren jolasean, udalekutako begiraleek antolatutako programaketa

jarraituz.

Esan zigutenez, beraien ilusio haundienetariko bat itsasoa ikusi eta bertan bainatzea omen zen hona etorri baino lehen. Gaur egun beraien amets hori bete da.

Bestalde aipagarria da aurtengo udalekutan ia berrehun haur izan direla Zumaiar, gehienak herrikoak, eta kanpotik datozen turista batzuk ere beraien umeak bertan apuntatu dituztela. Balorazio ona egiten dute beraz, ludotekako arduradunek.




Haur saharai eta zumaiarrak elkarrekin ederki moldatu ziren.

AIZMAN-KOS S.L.

**SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALA**

Iraeta
auzoa z/g
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24
20740 IRAETA -
ZESTOA



NIKOL-ENEA
taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

Olatu gainean dantzan

*Uda garaian bete-
betea sartu garen
honetan, zer hobeago
gure buruak
freskatzeko hain
erakargarri eta
ikusgarria den surfaz
hitz egitea baino.
Urte guztian jarduten
dira inguruko
hondartzetan gora eta
behera olatuekin
jolasten gure surfistak.
Goitik behera
edertasunez josirik
dagoen kirol honetaz
gehiago jakiteko,
herriko surfista
konsagratu eta
gazteekin aritu gara.*

ZEIN EGOERATAN AURKITZEN DA GAUR EGUN SURFA ZUMAIAIN?

Gero eta hobeto dago eta gainera asko ari da zabaltzen. Era guztitako jendeak praktikatzen du surfa eta ez lehen bezala dirudunak soilik. Hainbeste zabaltze hau ordea ez da onegia, olatuak hartzeko jende gehiago baitago eta hau surflari batentzat ez da aproposa. Baina honek bere aurpegi ona ere badu, surflari gehiago biltzean, herrian maila altuagoa izatea bultzatzen baitu.

BADIRUDI HALA ERE, SURFARI PAIPOAK PROTAGONISMO PIXKAT JAN DIOLA, EZTA? NONDIK DATOR JOERA HAU?

Igual, bai. Zumaian gazte asko dabilta paipoan eta ez bakarrik udan, baita neguan ere. Paipoa baino lehen hala ere, txanperoa zegoen eta beno, bai bat eta bai bestea, niretzat nahiko "light" dira. Batzuk paipotik gero surf tabletara pasatzen dira eta beste batzuk berriz, ez; esan behar da baina, paipoak bere independentzia propioa duela, bere txapelketa propioekin.



NOR DA ZUMAIAIN IZAN DEN SURFISTARIK HOBERENA?

Lehen ibiltzen zen jendearen artean Manu Mugerza oso dotorea zen tabla gainean eta Peke ere bai. Oraingo gazteetan berriz, Laskibar izango da beharbada hobereena.

Hala ere, generazio bateko eta besteko surfa egiteko era zeharo ezberdinak dira, konparaketa bat egitea zaila delarik. Lehen gainera errespeto gehiago zegoen surflarien artean, gaur egun gehiegi ez dagoena.

Zumaia, surfa egiteko ez da leku txarra

SURFA EGITEKO LEKU APROPOSENA?

Hemen inguruan, Bizkaiko kostaldea oso aproposa da: Mundaka, Lekeitio... Zarautz ere baldintzak behar bezalakoak direnean, ez dago gaizki.



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433
Fax: 861067

MATTE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Enberrera Kalea, 4
Telf.: Fax: 14 34 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

ZUMAIAN ERE BADIRA HAINBAT TOKI EGOKI SURFA EGITEKO, ADIBIDEZ ORRUA. BARRA BERRIAREKIN, HAU ZERTAN GERATU DA?

Zumaia surfa egiteko ez da leku txarra. Itzurungo hondartza, txikia den arren, hor jarduten gera olatuen gainean. Bestalde hor ditugu baita ere Santixo eta Orruako zonaldeak; Azken honetan dirudienez barraren eraikuntzak surferako ez du gehiegi afektatuko, olatuak mantentzen baitira. Oraindik ez degu sakonki begiratu, baina hala dirudi. Egia esan, pizifikatoriaren eraikuntza kaltegarriagoa izan zen sufragentzat.

Errespeto gehiago izan behar da, bai surfa egiten dutenen artean eta bai honen inguruan biltzen den jendearen artean ere

BADAKIGU NAZIOARTEKO TXAPELKETA ASKO ANTOLATZEN DIRELA, BAINA HEMEN EUSKAL HERRIAN NOLA DAUDE TXAPELKETA KONTUAK?

Bai, nazioarte mailan hainbat txapelketa jokaten dira, eta Euskal Herrian ere antolatzen dira. Zumaiarrek parte hartu izan dute proba baten edo beste baina segimendu gehiegirik gabe.

SURFAK ALDAKETARIK JASAN AL DU ORAIN DELA URTE BATZUETATIK HONA (TABLA, MOBIDA, TXAPELKETA...)?

Aldaketa nabaria izan da, batez ere urteak aurrera doazen bezela, gauzak aldatzen doazelako. Lehen aipatu bezala, orain askoz jende gehiago ibiltzen da surfean, material hobeagoak daude, baliabide gehiago.... Eta bestalde errespetoa, errespeto gehiago izan behar da, bai surfa egiten dutenen artean eta bai honen inguruan biltzen den jendearen artean ere (surfistak, bainulariak,



Vigilantes de la playa bi morroskoak

sokorristak...). Badakigu hala ere, hau zaila dela lortzen, baina saiatu behar gera.

SURFISTEK KALIFIKATIBO PILA JASOTZEN DITUZUE: PIJOAK, NIÑOS DE PAPA, BOLLITOS... ZER DUZUE ESATEKO HONI BURUZ?

Denetarik dago, "bollitos y no bollitos". Hau da, egia da leku batzuetan jendeak kanpotik surfistengana duen estereotipoa betetzen dela, baina hau ez da inondik inora ematen orokorrean.

"Niños de papá", "pijos" eta honelako etiketa horiek ez dira errealak

Surfa gaur egun oso hedatua dagoenez, era, aukera eta adin ezberdinetako pertsonak biltzen ditu bere baitan. Beraz, "niños de papá", "pijos", eta horrelako etiketa horiek ez dira errealak.



Gora behera bat baino gehiago izaten dira surfista eta bainisten artean

Taosa

Erribera kalea, 17
Tlf: 14 32 56

Salmentak:

- Untziak (Jeanneau, Rodman, etab.)
- Surf tabla eta Bodyboard (Taosia, H. Buttered)
- Arrantzako artikulak

KONPONKETAK, PLASTIFIKATUAK, POLIESTER, PINTAKETAK, ANTIFOULING IPINTZEA, OSHOSIS TRATAMENDUA.

AURREKONTU ETA IKERKETA TEKNIKOAK EDOZEIN MOTATAKO ERREFORMA ETA KONPONKETARAKO.



DORNUTEGI

ARMAIRU ENPATRUATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe
Telefonoa: 862051

**SUKALDEKO
ALTZARIAK**

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

PROFESIONALITASUNA ESISTITZEN AL DA? DIRURIK MUGITZEN AL DA SURFAREN MUNDUAN?

Honbre, badira surfetik bizi diren gutxi batzuk, baina jakina, hoiek munduko hoberenak dira, eta beraz pribilegiatuak. Bestela, kirol honen inguruko jantzi eta akzesorioetan mugitzen da batipat dirua, surflarien arteko profesionaltasun maila apur honetan baino. Egun, negozio haundia da, surfaren inguruko kamiseta eta antzerakoen salmenta.

Surfaren inguruan egun ez dagoen antolakuntza eta koordinaketa bat egon beharko litzateke

HAIN KIROL IKUSGARRIA IZANIK, ETORKIZUNEAN DIRU GEHIAGO MUGITZEKO POSIBILITATEA IKUSTEN AL DUZUE EDO KIROL AFIZIONATU HUTSEAN GERATUKO DA?

Zaila da profesionaltasun maila zabal bat lortzea. Hasteko surfistentzako hondartza bereziak behar dira, olatu onekin eta bestalde, surfaren inguruan egun ez dagoen antolakuntza eta koordinaketa bat egon beharko litzateke. Hau lortzea ez da erraza, surfa gauza guztien gainetik, disfrutatzeko kirola baita eta honen komertzializazioak bere enkantoaren zati handi bat kenduko lioke. ■



Surfa eta Itzurun

Surfa bakarka praktikatzen den kirol bat izatean, "egoista eta indibiduala" omen da. Honen inguruan egon dira saiakera batzuk surfistak elkartzeko, beraiei dagokizkien gaiak lantzeko, baina ez dute aurrera egin, "inoiz ez baitira surfistak kontutan izaten hauei zuzenki kaltetzen dien hainbat erabaki hartzerakoan". Adibidez jende askok ez badaki ere, debekatua dago hondartzetan surfa egitea. Hala ere ohizkoa da Itzurunen surfistak, olatuak hartzen ikustea. "Ezinezkoa da, urte guztian zehar uretan ibili, eta udaran ez sartzea. Hondartzan surfa egitea arriskutsua bada ere, errespetu bat egonez gero, ez dago arazorik. Gainera, itsaso txarra dagoenean, surfistek asko laguntzen dute sokorristen lanean, bañistak kontrolatzen, eta arazorik egonez gero, tablakin lagunduz". Eta arrazoia dute, azken finean, paletan jokatzeko ere debekatua dago Itzurunen. Nahikoa da, inorri traba egin gabe jolastea eta kitto.

Gainera, zer litzateke, Itzurun surfistarik gabe?



Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAIA

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



Montse Arana

Dударик gabe, Euskal Herrian pakea lortu dugula, dударик gabe.



Gorane Esteibar

Loteria tokatu zaitela, horrela diruakin gauza asko egingo nituzke.



Felipe Laskibar

Gustoa aituko nuke osasun ona daukatela, egun on bat pasa ahal izateko. Hori da eta inportanteena.



Jesus Gorostola

Inportantiena eguraldi ona egingo dula jakitia, plaira juteko edo bestela itsasora.

Zein albiste entzutea gustatuko litzaizuke bihar?



Manoli Cárdena

Euskal Herriko jaleo danak bukatu daiztela. Pakia egotia Euskal Herrian, besteikan ez.



Jesus Peñafiel

Bosniako egoera dana bukatzea behingoz.



Josefina Azpeitia

Bi hilabetetako nere alabak gau osua esnatu gabe lo egin dula.



Angel Segurola

Sorteo batian Karibera biaje bat tokatu zaitela hamabost bat egunetako.

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Belardenda
Paki
OSASUN NATURALA

erribera 2
Tlf: 143156

ONCE

JOXE
MANUEL

Kupoi batzuk
erosi eta ...


ZORTE ON !!

Udan, festak eta parranda

*Duela hamar urte
inguruko udako festak,
gaurkoak baino
animotsuagoak al ziren?
Edo garai hartako gazteak
parranderoagoak ziren?
Guk ez dakigu, baina
badaezpada, garai hortako
argazki batzuk
berreskuratu ditugu, udako
festetan zerrekin aurkitu
gaitezken gogoratzeko..*



*Ez dago hauen
inguruan esateko
gauza haundirik
ezta? Hala ere, hor
agertzen diren
asko gaur
formaldu egin
badira ere, beste
batzuk ez dira asko
aldatu, eh Agus?*



JZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

Endaiolezu amaici

* SUKALDERAKO ALTZARIAK
* ELEKTROGAILUAK
* BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8
Telefonia: 861694



Zertarako den diru eskaera? Ez dakigu. Agian, uretara salto egin duen horri erropa erosteko, ala txistulari pare horren aktuaioa ordaintzeko. Garbi dagoena da, saltsa guztietan jende berdina dagoela, baita uretan ere. Fotogenikoak ote?



Surf


Torre Luzea, 2
Tel. 83 50 24
20800 ZARAUZ

Erribera, 2g
Tel. 86 23 69
20750 ZUMAIA



leize
TABERNA

Juan Belmonte, 6
Tel. 860415 ZUMAIA



Argazki hauek berriagoak dira. Ur jokoak Talai-Pen ospatzen zirenekoak. Aurten ere, izango da antzerako saltsa, beraz hasi zuen trasatlantikoak prestatzen, baina kontuz hauei bezala ez hondoratzea! Ah! Eta kukañan parte hartu ezker, mesedez, trajebañotan, ez argazkiko Alfredo Landa hori bezala.



TXOKOA
B
E
R
N
A

Artadi
Auzoa

Tlf: 86 21 89

Jesuskoa
Faletxea



Ulea 86 17 39 • Cikia - Zumaita



KABI

TBERN - ZUMAI

SINTOMAK

zerria urduri azaltzen zaigu
Hazka egin izan ohi du bortizki
autolesio makina eginez.

Gaizkoakdurak


Azaleko zauriak

Zitada inguruan odol jariora
dario; HAEMOTOPINUS suis-ak
horrela gehiagotan erasotzen
du zauritutako lekua.

LESIOAK


Eskoriazio, zerri hile erorteta,
puntadun odolestu zauriak,

RAF
RAF
RAF





itxura dematoso duen azala;
suzti konengatik, zerriak
apenas jan ere egiten badu.
EGONEZA, ANEMIA

NEKEAREN ONDORIOZ HERIOTZA.



☼ ~~~~~ HHHiiii JJ XXXX ... Hiii JJJ XXX ... !!!

1995 46



☼ GRUMPF!
GRUMPF!
GRUMPF!



☼ - GRRRRR 000 MMPFF ... 3 !!! ☼



PARASITISMOA:
... PARASITO GUZTIEK
OSPEDADOREARENGAN
ANTIGENO-ANTIGORPUTZ
ERREAKZIOA
DAKAR ...

F. REDI

END

* GROMMPS ... GROMMPS !!



Motxian hi!

Nor: Agustin Zubimendi
Nola: "Austin"

- Zure ametsetako ilusio bat
Organua jotzen jakitia.
- Interes asko jasotzeko modurik egokiena?
Kulturan inbertitzea.
- Zein albiste nahi zenuke bihar entzun?
Pakia zabaldu dala.
- Jainkoa izango bazina....
Jainkoa bat eta bera nahikoa.
- Lehenengo muxua non eta noiz?
Ibañarrietatik bueltan neska laguntzen.
- Zumaian jendeak asko aurrezten al du?
Dexente, eta gehienak jubilatutak eta pentsiodunak.
- Zer nahiago: maitatu ala maitatua izan?
Nik biak.
- Globo baten gainetik beherantz begiratzuz, zer nabarmenduko litzateke Zumaia-rik?
Dena. Nolako herri polita daukagun.
- Zeinen etxeko felpudotan garbituko zenituzke zure oinak?
Inun ez. Nik ez ditut alfonbran garbitzen.
- Zein piropo botako zenioke neska bati?
Zu zera nere bihotzeko azukre koxkorra.
- Zer sentitzen dezu faltan eta zer soberan Zumaian?
Faltan kulturako giroa eta soberan elkar ikusi ezina.
- Urteko egunik garrantzitsuena?
Bat, San Pedro eguna eta bestea abuztuak 1.
- Asteburu honetarako plana:
Emaztea eta lagunekin afari ospetsua.
- San Pedro abesbatzako ahotsik onenetarikoak?
Entsaiotara etortzen diren guztiak.

Kontu-kontari

Juanito Kanikas

Juanito Kanikas Urteagaren triplea izan zen. Urteaga hau apaiza eta musikoa zen. Zumaian egon zen. Juanito Kanikasek esaten zuen:

-Hura musiko ona, baina alu galanta.

-Zer ba?

-Matrailekorik onena harexek eman zidan. Meza abestua zuzentzen ari zen. Ni ere koruan kantari. Amuaz azpiko emakume baten mantila jaso nahi nuen korutik. Urteaga ohartu zen eta matraileko ederra eman zidan.

.....

Juanito Kanikas hiltzen zegoen. Arnasa gaizki hartzen zuen eta ito behar zuen gaixoak. Oxigenoa behar zuen. Lantegitik sopletearen bonbil haundi bat ekarri zuten. Medikua graduatu eta mangera bat ahora jarri zion. Juanitok esan zuen:

-Hil egin behar eta musika jotzen ikasi behar al diagu?



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIK
• 24 orduetan
• Zeure etxean
• Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR FOTOKOPIAK

- * Enkuadernaketak
- * Plastifikatzeak
- * Fax publikoa
- * Bulegoko materiala

Basadi, 14 behea Tfnoa: 143120
ZUMAIA Fax:

Kanpotarrak nagusi futbito txapelketan

Uztailaren 28an jokatu ziren aurtengo futbito txapelketako finalak. Emakumezkoen artean Pub Garoa taldeak, Propiyori irabazi zion. Gizonezkoetan berriz, Ligan, Construcciones Manterola oriotarrek Zumaiako eta Arroako jokalariez osatutako Ederki taldea gailendu zuten. Azkenik, kopan, Gubi zarauztarrak Zalla, herriko taldea menderatu zuten.



Zalla erretegiak, bertako oilaskoak baino erreago daude.

Ekaina eta uztaila artean jokatzen den txapelketa hau, bukatu berria da eta edizio honetan hiru izan ditugu batipat aipatu beharreko kontuak: batetik, gizonezkoen kanpoko taldeen nagusitasuna, ikusi besterik ez baitago zeintzuk izan diren gizonezkoen txapelketetako irabazleak.

Bestetik, ezin da aitatu gabe utzi epaileek egin duten lan kaxkarra. Benetan eztabaidagarriak eta polemikoak izan dira partiduak zuzentzeko egin duten lana; alderantziz, zuzendu baino gehiago okertu egin dituzte, jendearen,

jokalarien haserrea eta gorrotoa behin baino gehiagotan agerian geratu direlarik jokaturako neurketetan.

Eta azkenik, neska taldeen kopuruak era nabarmen batean gora egin duela, aurtengo hamar taldek parte hartu dutelarik, bertan gainera, herrikoak nagusituz.

Xelebrekerien orduan esan behar da, sari banaketan txapelketan parte hartutako bi taldek epaileei eskeini zietela bere kopak, eginiko lan kaxkarra "sartu" nahiean. Espero dezagun hurrengo urteetan horrelakorik berriro ez gertatzea.

Esan bezala, azkenean nesketan Pub Garoa, Construcciones Manterola gizonezkoen Liga txapelketan eta Gubi Kopan suertatu dira txapeldun. Bestalde, merezimendu osoz Migel Angel Bernal txikiak jaso du txapelketako jokalaria hoberenaren saria.

Agian aurtengo dezepzioak Txanela talde zarauztarra eta Zalla Erretegia izan dira, biak ere behin baino gehiagotan irabazitakoak baitira Zumaiako futbito txapelketa hau, aurtengoan, bide erdian gelditu direlarik. ■

xirula



TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705



Basndi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA



HAUR JANTZIAK
Amalako plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA



Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430



Bonifazio Etxegarai plazatxoia z/g
Telefona: 861322

Sabin Arana Gipuzkoako txapeldun

Sabin Arana zumaia gaztea garaile suertatu da aurreko hilabetean Azpeitian burutu den Mountain-Bike Gipuzkoako Txapelketan. Berak azaldu digunez gainera, lasterketa honetan jeitsierako modalitatean gaur egun Euskal Herrian dauden txirrindulari hoberenak bildu ziren. Beraz, meritu bikoitza du honek.

Azken urte honetan, bai gure herrian eta bai kanpoan, kirol hau gero eta indar gehiago ari da hartzen eta hemen dugu honen islada.



Txapeldunaz aparte, Zumaian baditugu maila oneko beste lasterkari batzuk ere, Ibai Korta adibidez. Berataz esan behar dugu, lasterketa batean erori ondoren, zauri larri xamarak izan dituela bere bi hanketan. Espero dezagun ordea, laister izatea berriro lasterketak korritzen.

Sabin Aranak, garaipen honi esker Euskadiko selekzioarekin Espainiako Txapelketan hartuko du parte hil honetan. Honen ondoren, Munduko Txapelketara joateko asmoa duela ere adierazi digu.

Guzti honetaz berri zehatzagoa ematen saiatuko gera hurrengo zenbakietan.

Abuztuko X. Futbol Saria

Asteburu honetan jokatu da futbol txapelketa honetako finala. Urtero-urtero antolatzen den futbol sari honek, gero eta indar gehiago du Udaldian egiten diren antzeko txapelketen artean, eta taldeentzako sasoi onean jartzeko aproposa gertatzen da.

Aurtengo edizio honetan, azken urteetako

talde berberak hartu dute parte: Ondarroako *Aurrera*, Jesus Mari Zamora Errealeko jokalaria ohiaren Beasain taldea, *Real Sociedad B* eta *Eibar*.



IZERDI TANTAK

Eskubaloia

Gogoratu Pulpo esku-baloi taldeak antolatuta aurten ere eskubaloiko torneoak jokatu dela hilabete honetan. Noiz jokatu den ezagutzen ez badugu ere, merezi izango du lehen mailako talde hauen nondik norakoak jarraitzea.

.....

Auntzarrain lehiaketa

Abuztuaren 8an, goizeko 7,30ak eta 12,30ak bitartean, herrian hain ezaguna den Auntzarrain eta Dontzeilen XX. lehiaketa ospatuko da. Bertan, urtero bezala, herriko hainbat unti lehiatuko dira lehenengo sariaren bila.

.....

Dinastia Etxabe

Udako festetako egitarauan barne, XXIV. Dinastia Etxabe txapelketako partiduak izango dira. Bertan pala motzez eta eskuz, hainbat pelotari ikusi ahal izango dira

KOSTA  GAS
GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert 
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua

expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

GURE TXOKOA
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia



Abuztuak 1, asteartea
6etan Aita Mari futbol zelaian, Udako X. Futbol Txapelketako partiduak.

7,30etan Foronda kultur etxean Zumaiko Uda Musikalaren aurkezpena.

Abuztuak 2, asteazkena
Gaueko 10,30etan Odieta pilotalekuan, XXIV. Dinastia Etxabe txapelketako partiduak.

Abuztuak 3, osteguna
6etan Aita Mari futbol zelaian, Udako X. futbol txapelketa.

Abuztuak 4, ostirala
Gaueko 10,30etan Odieta pilotalekuan, XXIV. Dinastia Etxabe txapelketa.

Abuztuak 5, larunbata
6etan Aita Mari futbol zelaian, Udako X. Futbol Txapelketako amaierako partiduak.

12etan Eusebio Gurrutxaga plazan, "Nueva Alaska" taldeak alaituta, Berbena Berezia

Abuztuak 6, igandea
Goizeko 9etan "XVII. Aste Nagusia Saria" jubenil mailako txirrindulari lasterketa.

Abuztuak 8, asteartea
Goizeko 7,30etatik 12,30etara herri mailako auntzarrain eta dontzeilen XX. lehiaketa.

Abuztuak 9, asteazkena
Arratsaldeko 7,30etan Udaletxeko Biltzar Aretoan, Zumaiko X. Traineru Estropadaren aurkezpen ekitaldia.

Abuztuak 10, osteguna
Arratsaldeko 5etan Urolaren itsasoratzean, Traineru Estropada, Zumaiko X. Bandera.

Abuztuak 12, larunbata
Arratsaldeko 4etatik 6etara Arrain Txikiaren elkarte arteko XXI., lehiaketa
7etan eskubalo partidua polikiroldegian

Abuztuak 16, asteazkena
Arratsaldeko 6etatik 8etara Eusebio Gurrutxaga plazan, Sebastopoleko Titiriteroak.

Abuztuak 18, ostirala
Gaueko 10,30etan Odieta pilotalekuan, XXIV. Dinastia Etxabe txapelketako partiduak.

Gaueko 11etan hasita, Gernika Parkean, Rock kontzertua

Abuztuak 19, larunbata
Gaueko 11etan hasita, Koxka taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 24ean hasita, Oikian, Bertol Deunaren jaiak.

Abuztuak 26, larunbata
Gaueko 10,30etan Odieta pilotalekuan, XXIV. Dinastia Etxabe txapelketaren barne, azken partiduak.

Abuztuak 11, ostirala EUSKAL JAIK

Arratsaldeko 6etatik iluntzea bitartean Segurako trikitilariak Eusebio Gurrutxaga plazan

Arratsaldean zehar: Sueltoiko dantza erakusketa bi bikoteren eskutik: Arkaitz eta Amaia eta Isaak eta Eva.

Zumaiko Bertso Eskolako bertsolarien saioa

7retan hasita Sagardo dastapena

Gaueko 10,30etan Odieta pilotalekuan, DINASTIA ETXABE Txapelketaren XXIV. edizio partiduak.

Gaueko 11etatik 1etara kaleetan zehar, Festatxo txarangarekin kalejira.



**BASUSTA
ERRETEGIA**

M^{re} Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA

**ZALLA
TABERNA
ERRETEGIA**

Plater konbinatuak - Otartekoak
OILASKO ERREAK

San Pedro, 4 Tel: 862387
ZUMAIA

Galdona
burdindegia

Mendaro mariñela, 1 20750
Juan Belmonte, 15 ZUMAIA
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46 (Gipuzkoa)
Fax: 861330

Bertol Deunaren jaiak Oikian

Urtero bezala, aurtengoan ere, Oikian Bertol Deunaren jaiak ospatzen dituzte. Lau egun iraungo duten jai hauetan egun bakoitzak bere giro berezia izango du, egunero giro ona ziurtatuta badago ere. Denetarik izango da, rock kontzertu eta guzti, ikusi bestela hemen aurreratzen dizuegun egitaraua.



Abuztuak 24 osteguna: Bertol Deunaren eguna

11etan Meza Nagusia
Ondoren Pilota partidua eta Bertsolariak (Soroazabal eta Iturriaga)
Arratsaldeko 6etan bertako gazteekin, herri kirol jaialdia
Ondoren Bertsolarien bigarren saioa
Gaueko 11etan erromeria Maixa, Itziar eta Garbiñe-rekin.

Abuztuak 26, larunbata: Ezkonduen eguna

Egun guztian zehar ezkonduen arteko jokuak izango dira.
Gaueko 11 t'erdietan OTSOA-ARTZAI taldearekin rock jaialdia
Ondoren IZADI

Abuztuak 25 ostirala: umeen eguna

Goizean haur jolasak
Arratsaldeko 5etan KIKI, KOKO, MOKO eta FLASH pailazoak
Gaueko 12etan BASAJAUN taldearekin dantzaldia

Abuztuak 27 igandea: Edadetuen eguna

11etan Meza nagusia
Ondoren Eskuzko pilota partiduen finala. Herriko edadetuei omenaldia dantzari eta bertsolariekin (Lazkano eta S. Lizaso)
Arratsaldeko 6etan Herri Kirol jaialdia Mugertza, Zelai, Erasun eta Izeta-rekin
Ondoren Bertsolarien bigarren saioa
Gaueko 11etan erromeria Koldo eta Arantxa anai-arrebekin.

Abuztuak 18-19

kuadrilen asteburua

Ostirala 18, gaueko 11etan hasita, Gernika parkean, rock kontzertua:

Atxantatu

Etsaiak

Def Con Dos

Sarrera, aurrez 800 pela, bertan 1.000 pela.

Larunbata 19, kuadrilen eguna.

Eguerdiko 12,30etan beheko plazan hasita, poteoa bizikletan.

Eguerdiko 2,30etan Erribera kalean, bazkari



herrikoia. Kuadrila bakoitzak eraman dezala bere lapikoa!!

Bazkal ostean, kantaldi herrikoia.

Gaueko 11etan, beheko plazan KOXKA taldearekin dantzaldia.

ERROTA
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA

AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

ARGIA

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

SEXUA, SEXUALITATEA ETA EROTIKA

Askotan hitz egiten dugu sexu, sexualitate eta erotikari buruz, nahiz eta batzuetan ez ongi bereiztu eta sarri-sarri zaku berean sartzen ditugun. Hitz hauek egunero bizi dugun bizitza sexualari dagozkio eta artikulu honen bidez bakoitza zer den azaltzen saiatuko gera.

Sexua

Sexua elementu batzuen lotura, batuketa da, eta elementu talde horrek adierazten du pertsona maskulinoa ala femeninoa den.

Elementu hauek, sexu orokorraren barruan maila desberdinetakoak dira: sexu genetikoa (geneak, kromosomak), sexu gonadikoa (obarioak, barrabilak) sexu hormonalak (hormona maskulinoak, femeninoak) sexu psikosomatikoa (karakterra...); guzti hauek elkartuz joango bagina, "sexu integrala" deitzen zaiona osatuko genuke.

Sexua "hormona", "organo" edo gauza bat baino gehiago da, ez da edukitzen den zerbait, den gauza bat baizik; adierazpenik garbiena pertsona sexudunak garelako esatea da.

Sexualitatea

Askotan sexualitatea, sexuaren sinonimo bezala erabili ohi da, biak gauza bera izango balitz bezala; baina, zer da sexualitatea? Modu sinple



batean esanda, pertsona bakoitzak bere sexudun femeninoa edo maskulinoa erabiltzeko duen era.

Beste era batera esatearren, sexualitatea bakoitzak bere sexua bizi duenaren kalitatea izango da. Gauzak honela, batzuek sexualitatea modu erreprimitu batean bizi dute, beste batzuek natural eta erlajatuan, askok tentsio edo lasaitasunean.

Haurren sexualitatea, gazte edota pertsona helduena desberdinak dira, bai eta obulazioan dagoen emakumearena ere. Sexualitatea kalitatearen erreferentzia da: komunikatiboa, intentsoa, imaginatiboa, elementala....

Erotika

Sexualitatea bizitzeko eraren adierazpen zehatza dela esan dezakegu.

Erotika ferekaren sentsazio gozoak dira; sexualki ernagarriak diren egoeretan azaldutako desioak ere erotika dira.

Erotikaren beste adibide bat biluzien ikusketa izango litzateke, emakumeena, gizonezkoena...

Erotika, hirugarren erregistro bat izango litzateke, sexoa eta sexualitatetik at, beraien adierazpen zehatza.

Aipaturiko guztia, sexura mugatzen badugu, errealitatea murgildu eta deformatu egiten dugu. Askotan esaten da, arazo sexualak, informazio faltagatik izaten direla, baina ondo egongo litzateke informazioaren barruan, organo erreproduktibo, kondoi, zakil eta partaren informazioaz gain, pertsonaren dimentsio sexuala merezi duen bezala asimilatzea, lantzea. ■



ZUMAIA



AUTO-ESKOLA



* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
 * Praktika eta azterketak Azpeitian
 * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behe

20750 ZUMAIA

☎ 861018



batezulo

inportaturiko erropa eta artisautza

Basadi 3 Zumaia

Parking: Udako azken kirola

Ez dago zubi batetik salto egin beharrik, ez eta ibai bateko uretan praktikatu beharrik ere. Zumaian beste herri askotan bezala gero eta gehiago praktikatzen den kirol honetarako, arnes, soka eta neoprenozko trajeak soberan daude. Nahikoa dira, pipa pakete bat, zerbeza batzuk, eta txina pare bat, Amaia plazan iluntzeko lehen orduak goxo-goxo eserita igarotzeko.

Udako gau beroetan, gero eta gazte gehiago dira, Amaia plazako aulkiak betetzen dituztenak. Gero eta zailago da aulki bat libre topatzea, kuadrila asko baitira, astean zehar eta baita asteburutan ere, bertan biltzen direnak azken kotileoak komentatu, eta udarako plan eta ametsak egitera gaua argitzen duten izarren begiradapean izozki bat jaten duten bitartean.

Eguneroko irteera honek gero eta lagun gehiago baditu ere, gauero Amaia plazan entzun arazten zen lagun bat somatzen da faltan: parrokiko hontza. Noizean behin, tinbalak, eta kitarrak gaua girotzen entzuten badira ere, hontzaren SSSSSSHH!! ezagun hori somatzen da faltan, gauero bertan bildu ohi garen gazte guztien artean. Eguzki betaurrekoak erosi beharko ote dizkiogu azkenean? ■



Ehun lagunetik gora biltzen dira bertan gauero gauero.

Gazteriarentzako elkartoki bat

Gazteei aukera eman behar zaie. Aukera eman behar zaie beraiek nahi dituzten gauzak antolatu ditzaten. Aukera eman behar zaie egiteko kapaz diren gauzak egin ditzaten. Horretarako gazteek leku bat behar dute, bertan elkartu, egon, hitz egin eta beraien behar eta interesen arabera nahi dituzten ekimenak prestatu eta burutzeko. (...)

Beste zenbaitetan ere azaldu du jendeak behar hori, bereziki gazteek. Eta ez da batere harritzekoa izan ere, jubilatuek Zaharren Egoitza duten bezala, gazteek zergatik ez dute eduki behar halako edo antzerako topagune bat? (...)

Gaztetxea zutik egon zen urteetan, Elgoibarko Gazte Asanbladak hainbat eta hainbat hitzaldi, kontzertu, zine emanaldi, irteera, erakusketa eta

bestelako ekitaldiak antolatu zituen. Udaleko Kultura batzordea bera inbidiatan jartzeko moduko egitarau zabala. (...)

Udalak edo bertan agintzen duten ordezkariak leku bat, lokal bat eskaini beharko lukete gazteriarentzat. Gero, gazteek beraiek, interesa duten guztiek, Gazte Asanbladakoek nahiz gainontzeko guztiek, erabaki beharko lukete nola antolatu eta zer nolako erabilera eman. (...)

Borondatea badago, hitz eginez, posible da konponbide bat ematea gaztediarentzat hain garrantzitsua den kontu honi.

Jon Eugi
elgoiBARREN astekarian
117. zbkia. 95/7/21

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057



Erakusketak Profesional zaharrear:

-Uztailaren 14tik 27ra Arte Ederren Fakultateko ikasleak

-Uztailaren 29tik abuztuaren 13ra Valentin Manterola

-Abuztuaren 15etik 27ra: Jon Manzisidorren instalazioa

-Irailaren 1etik 3ra: Zuloagaren inguruko tailerraren erakusketa.

Erakusketa guztiak arratsaldeko 7etatik 9tara egongo dira zabalik.

Tailerrak:

-Abuztuaren 1etik 31ra:
Pintura eta zeramika tailer irekiak ume eta helduentzat
Ludotekan eta Gernika Parkean
goizeko 10,30etatik 12,30etara.

-Abuztuaren 30 eta 31:
Zuloagaren obraren inguruan tailer irekiak Profesional Zaharrear arratsaldetan.

Hurrengo Tabernarte:

Abuztuan zehar herriko zenbait tabernetan herriko artisten lanak erakusgai.



Julene Azpeitia VIII. Ipuin Lehiaketa

Berriro dago martxan jada aurkezpen beharrik ez duen lehiaketa hau.

Bakarrrik gogoratu, gai librea dela, eta ipuiak gutxienez 12 folio izan beharko dituela, makinaz bi espazioetara idatziak.

Idazlanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da, eta onartuak izateko, izenburua bakarrik eramango du agerian, idazlearen izena,

honekin batera bidaliko den sobre itxi baten barruan joango delarik.

Informazio gehiago udaletxeko Euskara batzordean..

Gogoratu hiru sari garrantzitsu daudela:

Lehenengoa **325.000** pezetakoa
Bigarrena **150.000** pezetakoa
Eta Zumaiarraren lan hoberenak **125.000** pezta izango ditu.

XI. Nazioarteko Musika Jaialdia

Gaueko kontzertuak (22etan)

Abuz. 1 - San Pedro Parrokian
Zumaiako San Pedro Abesbatza

Abuz. 2 - Aita Mari zineman
Italian Piano quartet

Abuz. 3 - Aita Mari zineman
Ignacio Zuloagaren omenez,
kontzertua, bere jaiotzaren
125. urteurrenean.

Abuz. 4 - Aita Mari zineman
Zumaiako jaialdiko orkestra

Abuz. 5 - Aita Mari zineman
Edith Murano, piano

Abuz. 6 - Aita Mari zineman
Aitzol Iturriagagiotia, bibolina
Iokine Iturriagagiotia, bibolina
Graham Jackson, piano


Abuz. 7 - Aita Mari zineman
Bruno Luise, piano
Salvatore Barbuscio, kontrabaxua
Carlo Battisti, perkusioa

Abuz. 8 - Aita Mari zineman
Zumaiako jaialdiko orkestra

Abuz. 9 - Aita Mari zineman
Josep Colom, piano

Abuz. 10 - Aita Mari zineman
Kurtsoen amaierako kontzertua

Abuz. 11 - Aita Mari zineman
Zumaiako jaialdiko orkestra



AIZPURUA

LIBRERÍA
RUDEN
OPARIK

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAILA



Mendaro Martiñela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKako Denda

ERTZ INFORMATIKA

-ORDENAGAILU P.C

-INPRIMAGAILU

-CD-ROM

-KRISTALEZKO PANTAILAK

-DISKETTEK

AEK eguna aurrera doa

Honez gero guztiok dakizue, baina bada ezpada ere berriro esango dugu: urriaren 22an burutuko da AEK eguna Zumaian. Hala ere, herri mailan ostiral eta larunbatean ere izango da ekitaldirik. Jada, nahiko zehaztuta dago egitaraua, baina Zumaiaiko AEK-k laguntza behar du ekitaldi hauek aurrera eramateko. Laguntzeko prest bazaude deitu euskaltegira, eta izena eman ezazu.

Igandean, Euskal Herri guztiko jendea etorriko denez, herrian hiru area edo guneezberdin ezarri dira. Errepide nazionalak sor ditzakeen zailtasunak ikusirik, hiru area hauetan zentratuko da festa: Gernika parkea, Amaia plaza-Moila eta beheko plaza.

Guk, oraingoz, behin behineko egitaraua aurreratzen dizuegu. Hala ere, ekintza hauetaz gain, izango dira egunean zehar beste hainbat ekitaldi, hala nola, trikitilariak, txarangak, banda, hankaluzeak, txalapartariak, dantzariak, bertsolariak, artisau feria etab.

Urriak 20, ostirala

Herri afaria Imanol Lazkano eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolariek girotuta. Oraindik afaria non egingo den zehazteko dago.

Urriak 21, larunbata

Arratsalde sardinajana izango da Kopraian eta txaranga ibiliko da kalean zehar giroa alaituz.

Gauetz 11etatik goizaldeko 3etara musika izango da Amaia plaza-moila inguruan, bertan Gozategi anaiak eta Txakun taldeak parte hartuz.

Urriak 22, igandea

1.go area: Gernika parkea.

Egun guztian zehar haurren parkea izango da bertan (ohe elastikoak...). Eguraldi txarra egingo balu polikiroldegia erabili beharko litzateke haurren topa-leku gisa.



Korrikan ere festa giroa nagusi izan zen Beheko plazan

2.go area: Amaia plaza - Moila

12tan: Ekitaldi nagusia.

12,30etan: Zarauzko Alproja antzerki taldeak bere azken antzezlan eskeiniko du.

14,00tan: Estropada.

16,30etan: Maixa, Itziar eta Garbiñe taldearen emanaldia

18,30etatik 21etara: Rock kontzertua

3.area: Eusebio Gurrutxaga plaza

12,30etan: Iparraldeko herri kirolak. Tartean bertsolariak arituko dira.

14,30etan: Herri bazkaria Odieta pilotalekuan.

15,30etan: Kantaldia

-Nerea eta Mikel

-Txanbela

18tatik 21etara: Drindots musika taldea.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefona: 861485
Fax: 143143

E G U Z K I / PUB

KOKTEL BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

Literatur tailer bat, barruan daukagun hori askatzen ikasteko aukera bat da. Bertan era askotako ariketak izaten dira, gehienak idazketakoak.

Guk, txoko honetatik, bi ariketa proposatu nahi dizkizuegu, zuek ere, idazteko gai zaretela ohartu zaitezten.

Batetik Julio Cortazar idazle ezagunaren testu zati bat. Testu hau, hankaz gora dago, eta zuek, benetan izango zenaren zuen bertsioa eman beharko duzue. Hortarako noski, denbora tope bat: 5 minutu dituzue. Animatu, ikusiko dezue zenbat konbinazio ezberdin lortu daitezken testu zati batekin.

Bestetik, Haiku pare bat idaztea proposatzen dizuegu. Haikua tradiziozko genero berezia da Japonian. Zen tradizioetik oso hurbil jaioa da. Haiku bat, une baten adierazpena, guztira barreiaturik da. Sentimendu bat azkar adierazteko era eder bat.

Guk Juan Kruz Igerabide-ren haiku batzu jartzen ditugu eredu gisa, hortik aurrerakoa zuen lana da. Animo!

BATEK IDATZITA OILO

Harrigarria pasatzen gurekin dena da. Azkar hurra! mende. Munduko Cabotik Cañaverl amerikarrek kaltegabeko bota kohetea zuten. Ezagutzen desbiatu ez orbitaz zen. Diren arrazoiengatik, eta seguruenik ikustezina ikutu zerbait eta itzuli mundura zuen. Honek. Gangorrera gelditu eta paf! konortetik erori gabe zitzaigun. Ginen. Azkar literatura asko biderketa ikasten taula gara ari. Literaturaz historiaz jantziagoak baino, gutxiago kirolak kimikan desastreak ez dio; axolarik kosmosak zer oilo izan garen demontre! baina dakien.

"La vuelta al día en ochenta mundos" -Julio Cortazar -Tomo I -Edit. Siglo XXI

Erromeroarena

Udazken abarra,
erromeroa loretan:
Aitona zaharra
begira, gogoetan.

Amona

Amonak leihoa ireki du;
bi txori isilik, eta elurra:
Ogiapurrak.

Lorategia

Amonak lorategiari
zimaurrea,
lorategiak amonari
jazminak;
amonak lorategiari
ura,
lorategiak amonari
krabelinak.

Etxearena

Tximinitik kea:
Nola alaitu den
etxearen betartea!

Gaueko hamaikak

Ama, lan eta lan,
ohera joan ezinik;
eta bera oheratu aurretik
ez du inork egiten ametsik.



JUSTA
TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK

Erribera kalea 20, Zumaia

KALARI TABERNA JATETXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA

Def Con Dos, letra basatiak, talde gogor batentzat

Talde madrildar hau, hil honen 18an ikusi ahal izango dugu Zumaiar Etsaiak-ekin batera, Gazte Batzordeak antolaturiko rock kontzertuan. Beraien musika ezagutzen ez dutenek ere, harrituta geratu daitezke zuzenean ematen duten ikuskizunarekin.

DEF CON DOS da, zalantzarik gabe momentuko talde aurrerakoi, mugitu eta orijinalena. Argitara emandako lau diska ederretan talde madrildar honen bokazio apurtzaile eta esperimentala ageri da; nazioarteko gaur egungo musika joera bildu eta nahasten asmatu dute, horrela rap, hard-core eta punk estiloak maisuki konbinatzen dituen estilo oso pertsonal bat sortuz. Orain berriz ere erabat harritu gaituzte ALZHEIMER izena daraman bere lan berriarekin.

Duela bost urte hasi zirenetik eskeini diguten lanik profesional eta konprometituena da. Hasieratik beraiek "estupidez dominante"-aren aurka burrukatzeko asmoa agertu zuten eta aldika "Asaltos" izena zeramaten grabaketa batzuk editatzen hasi ziren, oso ohizkoak ez diren manifestu eta komunikatu argi eta ingeniotsu batzuekin batera.

Alex de la Iglesia zine-zuzendariak "Acción Mutante" bere lehen luzemetraiaren banda sonora egiteko aukeratu zituen eta "El día de la bestia" egiteko berriz ere talde honengana jo du laguntza eske.

"Acción Mutante" filmearen banda sonora ezaguna beraiena

Zuzeneko emanaldi izugarriekin eta profesionaltasun handiz, azken bi urtetan estatu osoan zehar aritu dira gira zabal bat eginez, beti ere, jende multzo handien aurrean 50 emanaldi baino gehiago eskeiniz.

Diska honekin batera "DEF eraso" erabatekoa izan da: diska, bideometraia, klip berriak, eta ondoren, DEF liburua.

Beraiek esan ohi duten bezala, eta hala da, "jadanik munduko ezerk ezingo ditu geldituarazi".



Asturias planetatik, Zumaiara

Letra bortitzak, umore beltza, eta kitarra gogorrak dira Def Con Dos taldearen adierazgarri. Zuzeneko ikuskizuna ere ez omen da atzean geratzen. Gogortasuna da nagusi talde madrildar honetan, beraien musikaren kalitatea uka ezina delarik.

Estatu guztian arrakasta haundia badute ere, beraien zirkuitu nagusia Euskal Herrian dute, kanta bat euskaraz ere badutelarik.

Zumaiar ikusteko aukera, hilaren 18an izango dugu, Gazte Batzordean Gernika parkean antolatutako kontzertuan, herriko Atxantatu talde gaztearekin, eta Etsaiak talde arrakastatsuekin.

Ez galdu aukera hau.




TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAILA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89
Fax. 43 06 37



Gurutzegrama



EZKER ESKUIN: 1.- Moldezko letrak inprimatzen dituen makina. 2.- Zilborra. Ezagutzen dut. 3.- Oinarrizko edari. Amorante. 4.- Landare mota. Narama. 5.- Mendiko atea. Errepikatuz, gorotza. Potasioaren sinbolo kimikoa. 6.- Euskal aurritzia. Arma babesgarri. 7.- Ur kopuru tikia. Gaitza. 8.- Azkenekoa. Kasik. Interjekzioa. Erbioaren sinbolo kimikoa. 9.- Pluralean, neguko janzkia. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. 10.- Iturriak. Musika nota.

GOITIK BEHERA: 1.- Ausartak. 2.- Diru kopuru handia. Nafarroako ibilgailuetan. 3.- Aluminioaren sinbolo kimikoa. Interjekzioa. Hari, nuen. 4.- Zamak garraiatzen dituen animalia. 5.- Mila. Lehenengoa. Barazki ezaguna. Alderantziz, musika nota. 6.- Edade. Kontsonantea. Betekada. 7.- Katuaren kumeak. 8.- Beldurri. Kontsonantea. 9.- Afrikako ibaia. Momentu. Kontsonantea. 10.- Sarrerak. Garaia.

Bosteko ttipiak

Zenbaki bakoitzeko hitz bat eta bera

1. Nafarroako herria
2. Zuhaitz mota
3. Mendi magala
4. Jaurtikigaiak
5. Musika tresna

	1		3		5
1		2		4	
	2				
3					
	4				
5					

1. Gipuzkoako herria
2. Nafarroako herria
3. Gela zaindari
4. Mahai joko
5. Saria eman

	1		3		5
1		2		4	
	2				
3					
	4				
5					

Umorea

Mattin-ek Irutxulon 61. zkia.



DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.



MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

Axular 14
20750 ZUMAIA

- ALARMAK
- ANTENAK
- * Banakoak
- * Kolektiboak
- * Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

Telefonoak:
860074 - 861569

AGURRAK

Buitrakerrek 4 (lau!) kamixeta partitu ditu. Badute neska hauek hainbat meritu.

Aupa Xabier Anquetil!
Indu uaine.

Aupa Patxi, Amonagambajandajunda.
Cartajenero Moreno.

Xixario: mi primo el de zumosol.

Salda: zenbat ordaintzen dik Mortajak guri boikoteatzeagatik? Benito Lertxundin azkenengo diskoa oparitu dik ala zer?

Zorionak! Kontzertua la ostia izan dek!

Garibaldi, bronkas. Ardua edan ta txarreako jartzen al zeate? Hurrenguan isostar edan la ostia! Arbitrua kriston tipo jatorra dek eta.

SALEROSKETAK

5'5 metrotako plastikozko txalupa salgai dago. Nahi baduzu motorra ere salduko dizugu.
Deitu 14-34-89 telefonora.

OHARRAK

Hilaren 5ean urte bete aingura bota geniala. Marejada ala zer? Aurten korbata jarriko diogu.

Salmenta puntuak

Jesuskoa

Errota (Erribera)

Errota (Basadi)

Errota (Juan Belmonte)

Ogi Berri (Amaiako plaza)

Ogi Berri (Basadi)

Arkupe okindegia

Aizpurua liburudenda

Olano liburudenda

Loitz liburudenda

Alai janaridenda

Nikol kafetegia

Inpernupe taberna

Zalla erretegia

Foto Gar

Arroa Beheko estankoa

Azken orrialdean agertzen den artelan eder hori, Euskaltzaindiako hurrengo lehendakaria izango den Patxi Zubiaurrek eskeini digu.

Ilusio haundia egiten du urtebetetze opari batek, eta lagun batek eskeinia bada gehiago.

Mila esker Patxi!!

**ALEMANIERA IKASI ETA HOBETZEKO
AUKERA BIKAINA
ALEMANIERA MERKATAL ETA JURIDIKOA
MINTZA IKASTAROAK
ORAIN BAITA ZUMAIA ERE
DEITU 835609 TELEFONORA**

Lehiaketa goxoa



Lehengohilabeteko mutikoak Joseba Egaña, Xabier Elizalde eta Roberto Fuentes ziren. **Uxua Ostolazak** ederki asmatu zituen eta berari egokitu zaio San Markos tarta goxoa. On egin!

Garai batean Baleike ez zegoela eta, beste nonbaiten informatu behar. Gutxienez mutil hauetako baten izena asmatzen dezuenen artean

Txapartegi gozotegiak

eskeinutako tarta eder bat zozketatuko degu.

Utzi zure erantzuna eta datuak Foronda, ONCEko kabina edo Txapartegi bertan **abuztuak 18a** baino lehen, eta zorte on!



Baleike
1^{er} URTEURRENA
"ZORIONAK"

Pabxi Zubiaurre
1995